

FUTBOL-ZELAIETAN ENTZUTEN DIREN GARRASIAK, NORMALAK AL DIRA?

Urteak aurrera doazen heinean, futbola gero eta leihakorragoa ari da bihurtzen. Horregatik, ikusleen garrasiak handitzen ari dira. Hauek, normala omen dela esaten dute, baina honek horrela jarraitzen badu, litekeena da arazo larriak sortzea. Gaur egungo garrasiak gehiegizkoak iruditzen bazaizkigu, eta ez badugu hau gelditzeko ahalegina egiten, etorkizunekoak nolakoak izango ote dira?

Hasteko, futbol mundura gero eta jende gehiago ari da sartzen, eta honek, jende desberdin asko futbol-zelaietara ekartzea eragiten du. Nahiz eta jende isila eta formala egoten den partiduetan, beste ehuneko handi bat garrasika eta elkar jotzen egoten da, eta hau arriskutsua izan daiteke, jendeak zaurituta amaitzen baitu.

Bestalde, garrasi horiek, askotan, jokalariai entretentzen dituzte, bai aldeko garrasiek eta bai kontrako garrasiek ere. Honek ondorio txarrak ekar litzake, ez baitira kontzentratzen.

Adituek diotenez, futbol-zelaietan ikusleek garrasi egitea positiboa da, kasu batzuetan, jokalariai animatu egiten baitira. Gainera, frogatuta omen dute: garrasi gehien egoten den partiduetan, hobeto jokatzen dutela jokalariaiek. Hala ere, nik ikusten ditudan partiduetan arazoak soilik sortzen dira.

Dena den, garrasiak tamaina egokikoak badira, positiboa izan daiteke jokalarientzat, eta etorkizunerako ere bai, gure hurrengoek gugandik ikasiko baitute. Beraz, gaur egungo umeei garrasi egokiak eta animatzeko modukoak entzuten badituzte, beraiek berdina egingo dute, eta hemendik urte batzuetara, gehiago gozatuko dute futbolaz.

Ondorioz, gehiegizko garrasiak alde batera utzi, eta jokalariai ongi animatzea izango da hoberena denontzat. Futbol lehiakorra gure etorkizunarentzat arazoa besterik ez da, beraz, gozatu dezagun futbolaz arazorik sortu gabe!

Oihana Otaegi Odriozola

Azpeitiko Urola Ikastola BHI

DBH 4D